

**EZ NUEN DIAPOSITIBA EMANALDIRIK
EGINGO**

Olatz Mitxelena Larreta, 16 urte

Oiartzun

Farola umilen argipean igaro nuen zubia. Zubi txikia. Eta, han, bidearen amaieran, beste farola bat zegoen. Umila hura ere. Eta bidea argitzen zidan; han, amaieran. Ez nintzen ausartu, ordea, bertatik pasatzera. Agian, umiltasun horrek halako errespetu bat ematen zidalako; han, amaieran... Beraz, bertan gelditu nintzen, zutik, aurrean nituen zuhaitz dantzarietara begira.

Bakoitza bere martxara zihuan: batzuek eskuineko hostoak mugitzen zituzten lehenengo, eta ezkerrekoak segidan; beste batzuek, ezkerrekoak aurrena eta eskuinekoak ondoren. Bazen bi aldeetako hostoak batera mugitzen zituen zuhaitzik ere: gehiegi motibatutakoren bat. Baina denek jarraitzen zioten musikari. Esango nuke, baltsea zela une hartan haizeak markatzen zuen melodia, baina ez nago ziur. Izan ere, tarteka tangoaren tankera ere hartzen baitzuen haizeak ematen zituen golpe gogorrekin.

Eta nik, bidearen erdian jarraitzen nuen, motxila bizkarrean; eskuak boltsikoetan sartuta, paraleloan biak; burua puntuzko txapela gorritz babestuta, haizeak ilea nahastu ez ziezadan, eta sudurre-raino bufanda koloretsuaz tapatuta. Eta, begira egoteaz aspertuta jada, ni ere dantzan hasi nintzen. Aukeran, ezkerreko eta eskuineko hostoak batera mugitzen zituen zuhaitz motibatua hartu nuen irakasle; eta hari jarraiki, bi eskuak batera mugituz, pauso bat aurrera, bi eskuinera, beste bat aurrera eta hiru ezkerre... hasi nintzen dantzan. Berriro ere, haizea golpe gogorrakoak ematen hasi zen, eta, beraz, tangoaren pausoak dantzatzeari ekin nion: lehen bezala, baina pauso bizkorrago eta markatuagoekin. Behin hasiz gero erraza zen zuhaitzen erritmo biziari jarraitzea.

Arazoa zuhaitz motibatua hostoak galtzen hasi zenean etorri zen. Izan ere, hainbeste mugimendurekin, hosto guztiak haizeak eramane zizkion bere melodian galduta, dantzatzen jarraitzea ezinezko eginez. Eta niri ere berdinekin egingo ote zidan beldurtuta, dantzatzeari utzi nion, badaezpada ere.

Beraz, berriro ere bertan nengoen: farola umilenean argipean igaro nuen zubi txikiaren eta bidearen amaierako farola umilaren artean, zutik.

Eta zuhaitz dantzariari begira egoteaz aspertuta jadanik, gora begira jarri nintzen, izarrak kontatzeko asmotan. Betidanik izan nuen izarrak kontatzeko ilusioa; beti esaten baita asko daudela, baina zenbat dira “asko”? Eta espaloian luze-luze etzanda jarri nintzen, eskuak buru azpian nituela, argirik

egiten ez zuen farola baten gisan. Dena dela, ezin-
go nituen izarrak kontatu, zerua lainoz estalita
baitzegoen. Hori pentsatu nuen; ez baitzen ezer
ikusten: ez izarrik, ezta ilargirik ere. Beraz, zerua
lainotuta zegoela pentsa zitekeen.

Bururatu zitzaidan, orduan, hodeien formekin
untxiak, dragoiak, printzesak eta hegazkinak imaji-
natzen has nintekeela. Baina ilunegi zegoen horre-
tarako ere, eta ez zen ikusten lainoek formarik
bazutenentz. Aukera bakarra, beraz, ezerez ilune-
an nire imajinazioa proiektatzen hastea zen, horre-
tarako baliabide egokienak baintuen: pantaila eta
imajinazioa.

Hasi zen diapositiba emanaldia. Lehenengo dia-
positiba proiektatzeko arazo dexente izan nituen;
teknikoak, beti bezala. Baina bigarrenetik aurrera
martxa hartu zuen. Denetik ikus zitekeen; hura
gozamina! Garagardo apar artean “water polo”n
jokatzen ari ziren euliak, bere buruaz beste egin
zuen ume potolo betaurrekodun marginatua,
sumoan borrokan ari ziren katu lodikoteak, prin-
tzesak bortxatzen zituzten dragoiak, mundua kon-
kistatzen zuten maitaleak, gorbatatik zintzilik urka-
tutako gizon trajedunak, “Operación Triunfo”koak
bezalakoa izatearekin amesten zuen nerabea, bilu-
zik zegoela eta lotsatuta korrika alde egiten zuen
zuhaitz motibatua...

Baina ordu erdi pasa zenerako horretan ere naz-
katua nintzen. Beraz, proiektzioa eten nuen eta
lurrean etzanda jarraitu nuen, argirik egiten ez
zuen farolaren gisan.

Eta, berriro ere, zuhaitzei begira jarri nintzen. Ia denek dantzan jarraitzen zuten: hosto guztiak hai-zeak eramán zizkion zuhaitz motibatuak izan ezik; eta, lotsatuta bezala, tarteka adaxkaren bat mugitzen zuen, zerbait egitearren edo. Pena pixka bat eman zidan gaixoak; hain pozik zebilen dantzan...!

Zuhaitz motibatuaz penatuta artean, ezkerretara begiratu nuen, bidearen amaiera aldera. Han jarraitzen zuen farola umil bakartiak, bidea argituz. Eta, konturatu nintzen, farolaren eskuinaldean eserleku bat zegoela, zuri-zuri, huts-hutsik, nire zain bezala. Beraz, bertarantz abiatu nintzen, farolaren umiltasunak sortzen zidan halako zera hori albo batera utzita. Pauso batzuk eman eta laster batean heldu nintzen; hogeita hamasei denera. Eta bidearen amaiera hartan, farola umil bakartiak ongietorria egin zidan: argia itzali, gala handietan foko artifizialak itzaltzen dituzten antzera, eta bidea erakutsiz bezala, iluntasunaren alfonbra beltza zabaldu zidan oinpean. Eta han agertu nintzen ni, soinean soineko distiratsurik eta oinetan takoi ikusgarririk gabe, baina dotore zuhaitzen, galako ikusleen, txalo artean. Benetan umila zen bidearen amaierako farola. Bai, hala zen.

Ni neure tronuan eseri nintzen, gauaren iluntasun hartan nire erreinua kontrolpean izateko. Eta erregeari bere mezulariak bezala, aurpegia gozogo-
gozo laztantzen zidan hego haizeak ekarri zidan, hiriaren erdigunetik, azken orduaren berri: sei kanpai hots. Goizeko seiak gauaren hondarrean. Eta tronuan erortzen utziaz nire gorputza, begiak

itxi nituen, irekita ere gauza handirik ikusten ez zelako. Ametsen erreinura joan nahi nuen; egunsentia amets artetik agurtu.

Egunaren argitan errutina agertu zitzaidan begi bistan; beti bezala. Egunsentia ez zidan ezer berririk bistaratu. Autoak beren lantokietara bidean abiatu ziren, ilaran joaten diren pinu-zomorroen gisan –bat desbideratuz gero, atzetik doazen guztiak nahasten dira–; hiriko zarata bere eguneroko saioa emititzen hasi zen, Euskadi Irratikoak bezala, baina “heavy metal” musika gehiago tartekatuz; kalean, jendearen joan-etorria nabarmentzen zen, habia eraikitzen doazen inurrien antzerako zurrunbiloa eratuz; dendetako atak zabaldu zituzten, gehiegizko xahutzearen haitzuloei bide eginenez, eta umeak eskoletara bidean abiatu ziren, azken modako kromoak lagunen artean elkartrukatzera. Eguzkia ere ekialdetik atera zen; beti bezala.

Ni ere parketik hurbilen zegoen kalera gerturatu nintzen, eta izkinako kafetegian sartu; leiho ondoko mahaian eseri eta kafe kargatu bikoitza eskatu nuen; beti bezala. Oraindik ere aurpegian aurreko eguneko makillaje arrastoak zituen kamarerak ekarri zidan kruasan eginberria ere gustura hartu nuen. Aldameneko mahaitik dobla-dobla egina zegoen egunkaria eskuratu nuen, eta gainbegirada bat eman nion, titulu garrantzitsuenak irakurtzeko. “Al Kaedako ustezko 20 kide hil dituzte estatubatuarrek”, “‘Wilma’-ren abiadura geldotu egin da eta indar suntsitzaileagoa du orain”, “Ustez

gizonak jotako tiroen ondorioz andre bat hil da Baionako erietxean”, “Hegazti exotikoak inportatzea galarazteko eskatu diote EBri”, “Gonzalezek Titinen aurka jokatuko du final-laurdenetan, Leizari irabazi ondoren”, eta abar; beti bezala.

Bost azukre kozkor hondoratu nituen kafetan, eguna gozo gozo has nezan. Eta kruasan zatiak bertan bustita jan ondoren, goilaraz igerian geratutako hondarrak bildu nituen. Zurrupadaka edan nuen kafe beroa, aldameneko adineko emakumearen begirada neureganatuz. Jertsearen eskumuturrarekin aho ingurua garbitu eta mahaitik altxa nintzen. Hiru euro utzi nituen kafe arrastoz zikindutako barraren gainean eta ispiluari begira jarri-rik, txanoa kendu eta atzamarrez ilea motots batean bildu nuen. Bufanda, txanoarekin batera, motxilan gorde eta eskuez jantziak tolestu nituen, alkandararen lepoa, txukun, jertsearen gainean jarri ondoren.

Kalean gora abiatu nintzen ofizinara bidean, eta betiko jendearekin egin nuen topo. Bazterreko dendetara begiratu, eta betiko eskaparateak. Errepidea gurutzatzen hasi, eta betiko semaforoa, gorrian, noski.

Eta espaloian zehar aurrera nindoala, euren mugimenduan, zuhaitzek askatutako hosto lehorrek eraso zidaten. Baina nahiz eta zuhaitzek dantzari ziharduten, ez nuen ez baltserik, ez tangorik dantzatuko.

Eta nahiz eta nire imajinazioa proiektatu ahal izateko pantaila eskura izan, ez nuen diapositiba

emanaldirik egingo. Egunaren argitan, diapositi-
bak errutinak berak proiektatzen zituelako.